[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

514. zk.

XIII. urtea

2005eko urtarrilaren 21a




# Gaztetxea Vs. Koadrilen lokalak?

[ ERREPORTAJEA ] BLOG-ak • [ KIROLA ] MUGERZA KROSA

ONGI

ITURGINTZA

- Aire egokitua
  eta sistema integralak
- Klimatizazioa
- Berokuntza
- Gasa
- Iturgintza
- Erregai likidoak (gasoleoa)
- Eguzki energia

ERAKUSKETA











GOKI ERREFORMAK

**ERAKUSKETA**
**Olaso Poligonoa, 15**
**68 pabiloia**
**20870 ELGOIBAR**

**Tel.: 943 74 28 80**
**943 74 42 23**
**943 74 46 40**
**Faxa: 943 74 45 87**



# [ ZOZOAK BELEARI... ]



**IMANOL LARRAÑAGA**

Uxue, irakurri al zenuen aurreko astean BARRENen *zozoak beleari* esan ziona? Hileroko kontaktu hau kondoirik gabe egin behar dugula! Larru eta azal izan behar duela, mugarik gabe!

Zuri ez al dizu erreparorik ematen jende aurrean barruak erakusteak? Dena dela, zuk bentajaz jokatzen duzu. Suedian egonda, biluztu arren, ez zaitu inork ikusiko. Lasai ken ditzakezu arropak. Baina, hemen gaudenontzat, jende aurrean biluzteak beti ematen du beldurra. Zer bistaratu handirik ez daukagulako izango da, akaso. Baina, bueno, poliki-poliki bada ere, saiatuko gara gure lotsak soinetik kendu eta zerbait erakusten (erakutsi diot, eta ez irakatsi).

Uxue, indartsu ikusi zintudan Gabonetan. Bizitzari bere onena ateratzeko irrikaz. Ikusten da kanpora irteteak ez dizula batere kalterik egin. Irakasle eskolan izan nuen maisu batek zioena etorri zait burura. Haren esanetan, denok egin beharko genituzke bi etenaldi bizitzan zehar. Bat, unibertsitateko ikasketei ekin aurretik, eta, bestea, lanean hasi aurretik. Bi etenaldiok, munduari ateak ireki eta gauza berriak ikusi eta ezagutzeko aprobetxatu beharko genituzkeela zioen. Ideia gustatzen zitzaidan, baina ez nuen ausardiarik izan, eta, oraingoz, gure mundutxoan ikusi eta bizitakoarekin konformatu beharko naiz. Eta, zelakoa ikusten da mundua Suediatik begiratuta?

**[ «Bentaja daukazu, biluztuta ere, ez zaitu inork ikusiko» ]**

**IMANOL**

**[ «Coitus interruptusarekin perbertituriko ataldea gara» ]**

**UXUE**

**UXUE ALBERDI**

Mundua Suediatik begiratuta ere gaizki ikusten da, Imanol. Gainera, Mikel Markez *nola maite liteke lan eskeintza bati ezetz esatea ausardiarik handiena bihurtu den gizarte hau?* kantatzen ari zait eta, Ainhoa eta Amaia kondoirik gabe egitearen aldekoak diren honetan, egungo gazteek laster lehen aldiz larrua jotzera doazenean gurasoei abixatuko dietela diosta Mikelek.

Eta zu aldamenetik biluzteko eskatzen. Kentzeko arropak banaka-banaka, goitik hasi eta behera, gorputz zatiak banaka agerian utziz... eta hurbiltzeko zugana, larru eta azal, kondoirik gabe. Eta emozionatzera nindoanean...taka! Etenaldiaren kontua atera ez didazu, ba! Agian hori da gure gizartea: *coitus interruptus*arekin perbertituriko artaldea. Alternatiboenek ere etenaldiez soilik ulertzen dute... bidaiatxoa unibertsitatean hasi aurretik; eskapadatxoa lanean hasi aurretik... eta gero lanerako bizi, jan, lo, erosi, hil. Denbora falta zaigun bakoitzean lanerako falta zaigu! Ederra litzateke, ba, lanerako etenalditxoak egin eta noizean behin piskatxo bat bizitzea. Zer den bageneki! Zoritxarrez, dio Mikelek, *arratsaldeko zortzietan kaleak hutsik geratzen dira supermerkatuak denborapasarako gune bilakatu ditugunetik...*

Eskerrak merkadilloa geratzen zaigun!

---

“ Esperientzia: bizitzak eskaintzen digun orrazia burusoil geratu eta gero ”

Judith Stern

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Eskutitzak

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

**1.** Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
**2.** Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: “Ikastolako irakasleak”, esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
**3.** Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
**4.** Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
**5.** Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

## Gabon Zahar Feriako inuzentada

Urtero, gabonak gerturatzen direnean, Gazte Asanbladak Gabon Zaharreko Ferian postua jartzeko baimena eskatzen dio Udalari. Urtero, baimen hori arazo barik eman digute eta Leku Ederren jarri izan ohi dugu gure postua. Urtero jarri ditugu kamisetak, jertseak, informazio eta kontrainformazio ezberdinak herritarron eskura. Urtero, aurten izan ezik.

Aurten, urtero lez, eta gaztetxerik gabe egoteak suposatzen duen zailtasunen gainetik, gure materiala kalera atera nahian Udalari baimena eskatu diogu postua jartzeko ferian. Aurten, eta lehenengoz, baimen hori ukatu digute. Barkatu, erratuta nago, baimena eman ziguten, bai, baina ferian beharrean Maalan, eta aterperik gabe, manta bat luzatu eta gure materiala exposatzeko baimena. "Top manta", lagunok.

Arrazoiak?

1)Leku falta. Gezurra! Leku Ederren bertan hainbat postu hutsik geratu ziren.

2)Ferian bertan produktu tipikoak soilik egoteko nahia. Gezurra berriro ere, "Kilometroak"en postua han zegoen eta haienak "produktu tipikoak" badira, gureak zergatik ez?

Oztopo hauen gainetik, nahiz eta era kaxkarragoan, gure materiala Leku Ederrera atera genuen, ferian egon nahi genuelako, urtero lez.

Eta jakizue, herritarrok, gu ez garela inuzentada honen biktima bakarrak izan, besteak beste, "Etxerat"i eta "Istilu Banaketak"i berdina gertatu zaielako.

Ai, Maribi, konturatzen al zara zertan zabiltzan? Herria apurtxo bat gehiago maita ezazu, emakumia!

**IBABE URZELAI BARRUTIA**
**GAZTE ASANBLADAKO KIDEA**

**E-POSTA**
**barren@elgoibarkoizarra.com**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**


[b]arren

**LAGUNTZAILEA** Elgoibarko Udala **ZUZENDARIA** Jasone Osoro **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Uxue Alberdi, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **ESAERA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburutik **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.275 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*



## GALDERAK

Zer gertatu da Madalako errotondan? Herritar bat baino gehiago etorri zaigu Madalako errotondan zer gertatu den galdetuz. Batzuk Udala probak egiten ari dela uste dute, eta beste batzuk, norbaitek semaforoak izorratu dituela. Duda hauek argitzeko asmoz udaltzaingora deitu dugu, eta sargentoak jakinarazi digunez, gazte batek semaforoa hondatu zuen. Momentuz, teknikoak etortzeko zain daude, eta Udalak semaforoak konpondu eta lehen bezala jartzeko asmoa dauka. Oinezkoei dagokienean, semaforoak konpondu arte ezin dela ezer egin adierazi digu".

## KEXAK

Gazte koadrila batek esan digunez, patinetean ibiltzeko lekuak, eta patinetan edota bizikletan ibiltzeko bide gorriak behar dira Elgoibarren: "Gazte asko ibiltzen da Elgoibarren bizikletan, patinetan edota patinetean, eta ez dago lekurik. Oso arriskutsua da. Gainontzeko herrietan bide gorriak egiten ari dira, eta Elgoibarren ere, gauza bera egin beharko lukete".



## TXALOAK

Parrokiako Misio Taldeak Bidezko Merkataritzaren dendan parte hartu duten elgoibartar guztiei eskerrak eman nahi dizkie: "Batetik, Bidezko Merkataritzara erosle moduan hurbildu diren guztiak eskertu nahi ditugu. Aurtengoa, Bidezko Merkataritzaren denda jarri dugun 9. urtea izan da eta, berriro ere, herri guztia oso ondo portatu da gurekin. Gure helburua, herrialde aberatsetako kontsumitzaileei herrialde pobreetako produktuak gerturatzea izan da, bide batez, gastu solidario eta kritikoa egiteko. Bestalde, Udalari ere eskerrak eman nahi dizkiogu Santa Ana Kalean utzi digun lokalagatik. Hiru aste inguru pasatu genituen lokal bila, eta azkenean lortu genuen. Eskerrik asko denori!".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12




*FRANCISCA BARRUETABEÑA PLAZA*

San Lazaro egoitzako lankideok eta residenteok gogoan zaitugu.

*SAN LAZAROKO LANKIDEAK*



# Bote prontoan



URRUZUNOREN *luma*

## Heriotza

Hilobian sortuak dira ederrak larrosak.
Harroak dira larrosak afusilatuen harrobian.
Arantzak patuaren itzalak harrapatuta daude,
PRESO,
olerkitasunaren itsasoan murgilduta,
GILTZAPETUTA,
ilunabar argiak balaku,
bizitzaren kantak min.

Zenbat erloju dituen bizitzak,
tik-tak;
heriotza dezimalki ezarriaren eusleak,
zenbat erloju;
zenbat nostalgia.

Goazen, hara non heriotza zeremonia bat besterik ez den.

***Maite Uriarte***



BAI ESAN?

## KOLDO LIZARRALDE

ELGOIBARKO
GURUTZE GORRIKO PRESIDENTEA

*Gipuzkoako Larrialdi Zerbitzuetako anbulantzietako langileak greban daude iazko azarotik. Egoera honek elgoibartarroi nola eragingo dion jakin nahi izan dugu, eta horretarako Koldo Lizarralderi deitu diogu.*

• **Zein egoeratan dago Gipuzkoako Anbulantzien greba?** Hasteko aipatu beharra daukat, grebak ez digula guri eragiten. Enpresa pribatu bat soilik dago greban, eta gainera larrialdi kasuei erantzun egiten diete.

• **Elgoibartarrei nola eragiten die greba honek?** Elgoibartarrak lasai egon daitezke. Gurutze Gorria eta ospitaletako anbulantziak ez daude greban, beraz, edozein beharretarako herritarren zerbitzura gaude. Gurutze Gorrira edo 112 zenbakira deituz, beharrezko zerbitzua jasoko dute.

• **Grebaren ondorioz lan gehiago izan al duzue?** Azken hilabeteotan larrialdi kopurua izugarri handitu zaigu, baina ez dut uste grebarengatik izan denik. Gripeak gogor jo du aurten, eta pertsona nagusiengan arazo larriak sortu ditu. Jende asko hil zaigu azkenaldian.

• **Larrialdiei erantzuteko baliabide nahikoak dituzue?** Bai, badaukagu jendea, baina bolondresak falta zaizkigu. Gaur egun borondatez inork ez du lanik egin nahi.

## komikia




Kokoe 002

# [AKORDATZEN NAIZ]



**JAVIER ARRIOLA**

1940an jaioa

## «Bertsuak»

Afizio haundixa dakat bertsotarako, eta akordatzen naiz hemezortzi edo hemeretzi urterekin jai illuntzian nola juten giñan Mendarora fuboliñian egittera. Fuboliñian egiñ, eta gaseosia edaten gendun. Tabernan zauden zaharrak bertsotan egitten zaben afalostian. "Joño, honek gaztionek bertsotan egitten dau eta! Hi, Lazkano -gure aitta Lazkano basarrixan jaixua zan ba-, jarri gurekin bertsotan", esan zidan batek (Mendaron beti egon da bertsuetarako zaletasun haundixa). Hirurogei urtetik gorako aittaren ezagun harekin hiru edo lau bertso kantau nittuan, eta etxera. Bixaramonian, kargu hartu zidan aittak: "Atzo zer pasau dok? Bertsotan Sahatzurenian? Horixe falta juagu, oiñ tabernan bertsotan hasi hadi hi ere". Pentsauko zaben mozkortuta nenguala bertsotan hasteko. Ez det esan nahi mozkorrilluena zanik, baiña tabernan bertsotan egittia ez zaguan ondo ikusitta ("ez zuan kondiziuetan egongo, bertsuetan egitteko", esaten zan).

Denporiarekin, gauzak aldatu egin ziran. Esaterako, ezkondu nitzanian, Mendaroko jaixetan. Inbitazio haundixa egoten zan orduan, eta bateron bat etortzen zan bertsotan egitten zabana, eta orduan aitxak "kantau egik heuk ere". Orduan ez zan bertso-eskolarikan eta puñetarikan. Gero neu ere hortxe egon nitzan bederatzi urtian Elgoibarko bertso-eskolan profesore. Ez gendun asko erakutsi, baiña bueno....



# [GURE BERBAK]

## Agurrak

Ezagun edo lagun batekin topo egitten dogunian erabiltzen dittugun esaldi batzuk jaso dittut gaurkuan: alkarren egoeraren berri galdetzeko balixo dabenak dira, onenetik txarrenera ordenauta.

Ez dau esan nahi dauden aukera guztixak diranik, baiña hauek behintzat entzuten dira gure kale eta auzuetan.

*-Zer moduz zera? -Oso ondo: ni baiño hobeto daguana ez dago gaizki!*
*-Zer moduz bizi haiz? -Espezial!*
*-Ondo zabiz? -Ondo: majo bizi naiz, eta ez nago kejatzeko moduan!*
*-Zer moduz zaude? -Ondo edo, ondo ustian.*
*-Zer, ondo? -Ondo edo, ondo nahixan.*
*-Aspaldiko! Zer moduz zabiz? -Hainbestian! (= gaizki ez behintzat, "pasable")*
*-Zer moduz zabiz? -Ez haiñ ondo, danaren biharrian.*
*-Zer moduz zera? -Nahi eta eziñian, emakumia!*
*-Zer moduz habill? -Gaizki, motell! Behia jota nabik aspaldixan!*

***Jesus Mari Makazaga***

**JOSE** *pinturak* **(Txema)**
**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.**
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

Iriondo TABERNA
Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

## EGUNEROKO BIZIPENAK INTERNETEN

# WEB LOG

*Interneteko azken fenomenoak izen propioa du: Web log. Jorn Bargerrek sortu zuen hitz hori AEBetan 1997. urtean, eta handik aurrera sekulako garapena izan du. Oraindik ere oso ezaguna ez den arren, 10 milioi internautek badute beren web log propioa. Baina zer da web log-a? modu erraz batean esateko, Weblog-ak interneteko notizieroak direla esan daiteke. Web gune dinamikoak, alegia. Berriemailea elkarte edo enpresa bat, pertsona talde bat edo pertsona bakar bat izan daiteke. Gaiak ere norberak nahi dituenak izan daitezke eta argitaratu ere edozein momentutan egin daitezke. «Orainkariak» ere deitu izan zaie Weblog-ei, eta Blog edo bitakora hitzak ere erabiltzen dira azken fenomeno hau definitzeko.*

Sustatu izan zen euskarazko lehenengo web log-a (www.sustatu.com). Maite Rementeria, besteak beste interneterako aplikazioak egiten dituen Eibarko Codesiyntax (www.codesyntax.com) enpresako langilea da, eta berak kontatu digunez, "2001. urtean sortua, Sustatu Weblog kolektibo bat bezala definitu dezakegu. Jendeak bere artikuluak bidaltzen ditu eta artikulu horiei pasoa eman edo ez erabakitzeko editore batzuk daude. Iaz arte bera izan da euskal panoraman arrakastatsuena".

### WEBLOG PERTSONALAK

2004an weblog pertsonalak loratzen hasi ziren Euskal Herrian. Maiteren hitzetan, "gaur egun weblog kolektiboak baino indar gehiago hartu dute blog pertsonalek. 100etik gora weblog dauzkagu euskaraz eta 2005 urtean beste mordo bat jaioko dira, dudarik gabe". Askorentzat weblog-a diario pertsonal hutsa da, baina Maitek esan digunez, hori baino askoz gehiago ere bada: "Ez da diario bat soilik. Batzuk anekdota pertsonalak idatzi arren, askok gai konkretuei buruz idazten dute. Luistxo nere lankideak kazetaritza kolokan dagoela esan ohi du. Kazetari senik apenas ez dagoela. Ez dagoela informazioa biltzeko grinarik. Blogariak, berriz, informatzeko sena du, berak dakiena zabaltzeko gogoa. Informazio aberatsa eta eguneratua jaso daiteke biologo, diseinatzaile edo filologo baten blogean. Liburu bat edo egunkari bat




http://amodioablog.tk/

argitaratzea garestia da, eta inork ezin du iniziatiba propioz egin. Blog bat berriz, oso merke edo doan ere egin baitaiteke".

### WEBLOG-AK EGITEKO PAUSOAK

Weblog-ak egiteko ez dago modu bakarra, aukera desberdinak daude. Maitek kontatu digunez, "gorabehera handiegirik gabe, interneten blog-ak egiteko doako hainbat plataforma daude, hori bai, gazteleraz. www.blogger.com eta www.blogs.ya.com helbideak, adibidez. Nik uste dut egongo direla blogak web bidez erraz sortzeko aukerak Euskal Herrian eta euskaraz. Akaso 2005ean ikusiko dugu hori. Honetaz gain, www.eibar.org helbidean sartuz, argibide gehiago jaso daiteke".

**AMAIA FERNANDEZ** BLOG-ARI ELGOIBARTARRA

# «Nire perfila ezagutu dezake nire blog-ean sartzen denak»



**Zer da web log bat?**

Gure irakasleak, itsasontzietako bitakorarekin konparatzen du. Interneten bidaia bat egin, eta bertan ikusten duguna gure web log-ean jasotzea da helburua. Gustatu zaiguna, edo gustatu ez zaiguna jaso, eta norberaren web log-ean jartzen da.

**Nola funtzionatzen du?**

Funtzionamendua erraza da. Bakoitzak bere web log-ean nahi duena jartzen du: Eguneroko bizitzarekin zerikusia duten gauzak, bidaiak... gero jendea orrialde horretan sartzen da, eta erantzunak emateko aukera dauka. Foro baten antzerakoa da, bakoitzak bere iritzia eman dezake. Azken hitza nik daukat, administratzailea ni naiz, eta nik erabakitzen dut zein erantzun laga, eta zein kendu. Jendeak anonimoki edozer esaten du, eta gustatzen ez zaizkidan komentarioak ezabatu egiten ditut.

**Nola izan zenuen honen berri?**

Deustuko Unibertsitatean Ingeles Filologia ikasten ari naiz, eta bertako ikasgai bat da. Irakasleek esaten digutenez, letra arloko ikasketak pobre gelditzen dira informatikarik gabe.

**Zertarako erabiltzen duzu?**

Iaz nire bizipenak kontatzeko erabiltzen nuen. Fenomeno berria zen niretzat, eta egunero sartzen nuen zerbait: Elgoibarko Gaztetxeko kontuak, edo kontzerturen baten komentarioa... Oso engantxatuta egon nintzen, niretzako ez zen obligazioa, oso gustura egiten nuen. Aurten ordea, ikasgaia gainditzeko klaseko kontuak sartu behar ditugu, apunteak edo egiten ditugun lanak, eta hori ez zait hainbeste gustatzen.

**Modan jarriko al da?**

Posible da. Oraindik jende gutxik erabiltzen du, baina benetan, oso interesgarria da, eta behin erabiltzen hasten zarenean, engantxatu egiten zaitu.

**Ez al duzu uste diario bat jende guztiaren esku jartzea denik?**

Bai, azken finean hori da. Nik ez ditut gauza oso pertsonalak idazten. Nire bizitzarekin lotutako gauzak idazten ditut, baina gehiegi sakondu gabe. Hala ere, nire web log-ean sartzen denak, badu nire perfila zein den jakiteko aukera.

**Besteen weblog-etan sartzen al zara?**

Bai, gauza oso interesgarriak aurkitzen dira. Momentuz nire klasekideen web log-ak bakarrik ezagutzen ditut, baina gustatzen zait bertan sartzea.

*http://littera.deusto.es/alumni/c0304/3amferna/weblog/index_html*

## EUSKARAZKO BLOG INTERESGARRI BATZUK:

- Joxe Arantzabalek bere gaixotasuna kontatzen du.
  *http://faroa.blogspot.com/*
- Internetez hitz egiten duen blogari euskaldun bat: Jabi Zabala.
  *http://www.sarean.com/*
- Euskal dantzari buruzkoa: Oier Araolaza
  *http://www.eibar.org/blogak/oier*
- Prospektibari buruz: Eneko Astigarraga.
  *http://www.eibar.org/blogak/prospektiba*
- Xabier Mendiguren idazle eta editorearen bloga:
  *http://www.eibar.org/blogak/mendiguren*
- Julen Gabiria idazlearen weblog-a
  *http://www.eibar.org/blogak/gabiria*
- Estatu mailan oso famatua den beste bat:
  *http://www.minid.net/*
- Berna Wang-ek bere bitakoran idazten dituen idatziak "radio3"eko "musica es 3" programan irakurtzen dituzte egunero.
  *http://lamiradaoblicua.bitako.com/*
- Maite Rementeriaren blog-a:
  *http://www.eibar.org/blogak/maite*

# Astekoak

## [ PROTAGONISTA ]



### LuisSantolaya

Urtarrilaren 16an utzi gintuen Luis Santolayak. Bera zen Elgoibarren ezagutu den zine dotoreenaren jabea: Odeon, San Anton egun batez inauguratu zena, hain justu. Gainera, igandean ospatuko den Mugerza krosari erabat lotuta egon zen. Ingalatarra eta Afrikako zuzendari eta korrikalariekin harremanak izateaz arduratzen zen. Juan Mari Iriondoren hitzetan, "Elgoibarko eta Euskal Herriko enbaxadorea izan zen Ingalaterran". Elgoibartar guztion oroimenean geratuko dira gizon txiki honek egindako gauza haundi guztiak.

## [ NOTIZIA ]

### Hezkuntza Kalitatea hobetzeko saria jaso du IMHren "Simultec" proiektuak

Espainiako Kultura Ministerioak eta BBVA Fundazioak Hezkuntza Kalitatea hobetzeko Francisco Giner de Los Rios saria eman diote IMHri. Urtarrilaren 13an, Monica Gilek jaso zuen XXI. edizioko saria IMHren izenean. Sari banaketa Madrilen egin zen. Maria Jesus San Segundo Espainiako Kultura Ministroak eta Francisco Gonzalez BBVA Fundazioko presidenteak banatu zituzten sariak.

**"Simultec" proiektua**

"Simultec" mekanismo eta prozeduren simulaziorako proiektua da. IMHk jarraitzen duen berrikuntzen ildoaren emaitza da proiektu hau, eta baliabide digitalen kokagunean oinarritzen da.



Proiektu honen helburua fabrikazio mekanikoko hainbat gairen ikasketa erraztea da. "Simultec" proiektuan mekanismo eta prozedura desberdinen funtzionamenduari esker, irakasleen ariketa didaktikoa hobesten da, ikasleei tailerrera sartu aurretik gai konkretu batzuk sakontzen lagunduz.

## [ ZENBAKIA ]

# 75.000

### Mendaroko Ospitala txiki geratu da

Debabarrenako Eskualdeaz gain, Bergara, Azpeitia eta Azkoitiko jendea ere joaten da bertara. Azken urteotako hobekuntza batzuei esker egoera apur bat hobetu da, baina Mendaroko Ospitala txiki gelditu da.

## asteko [ ARGAZKIA ]




Negu guztietan bezalaxe, aurtengoan ere makina bat etxetan sartu da gripea. Batek harrapatzen du lehenengo, eta normalean etxeko guztiek pasatzen dute ondoren. Ospitale guztiak jendez gainezka, eta Osasun Zentroak gaixoei erantzuna eman ezinik dabiltza gripearen ondorioz. Joan zen astean, 100.000 biztanleko 707 gaixo zeuden gripearekin.

Argazki honetan ikusten den bezala, jende asko lanera joan ezinda gelditu da. Zorionekoa gripearen hatzaparretan erori ez dena!

# Apraizko depuradoraren obrak 2005 urte amaierarako amaituko dituzte



Gipuzkoako Foru Aldunditik jakinarazi dutenez, Apraizko depuradoraren obrak 2005. urte amaierarako bukatuko dira. Depuradora honek Elgoibar, Eibar, Soraluze, Mallabia eta Ermuko urak garbituko ditu, guztira 95.000 biztanleri eskainiko die bere zerbitzua. Horretarako ezinbestekoa da kolektore sarea bukatzea.

Apraizko depuradorak Espainia mailan berria den SBR sistema erabiliko du. Sistema biologiko hau leku falta dagoen tokietan erabiltzen da, eta Elgoibarko kasuan hiru balsa eraikitzea ekidingo du.

**13.500.000 euroko aurrekontua**

Obrak 13.500.000 euroko aurrekontua du. Lur sorua indartu egin dute, eta egituran arazorik izan ez dadin, drenaje sakonak egin dituzte indusketetan.

Kontrol gela Apraiz Behekoa baserrian ezarriko dute. Horretarako baserria eta ingurunea berritu egingo dituzte, XV. mendeko fatxadak mantenduz.

## Akei baserriko Satur astoa irabazle Lazkaoko lehiaketan


Aitor

Akei baserriko Satur astoak bigarren urtez jarraian irabazi du Lazkaoko asto lehiaketa. Astotxo Eguna ospatzeko urtero antolatzen dute Gipuzkoako herritxo honetan lehiaketa hau. Ehun asto inguru bildu ziren lehiaketan, eta epaimahaiak Saturri eman zion saria. Honez gain, 2003. urtean Gordexolan beste sari bat jaso zuen.

Domingo Arriola, Saturren jabea, duela hiru urte hasi zen Enkarterrietako astotxo hauek hazten eta Satur izan zen Akei baserrira iritsi zen lehenengoetakoa. Zorionak bioi!

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Euskara familia transmisioan

Elgoibarko Izarrak Udalarekin elkarlanean hainbat ekintza prestatu ditu 2005erako 0-6 urte bitarteko umeentzat. Besteak beste, euskarazko kantak eta jolasak ikasteko aukera izango dute gurasoek. Lehen ekitaldia otsailaren 19an izango da, dohainik, Herri Eskolako ate irekien egunean. Taldeak osatzeko urtarrilaren 28a baino lehen eman beharko dute izena. Informazio gehiago 943 74 16 26 telefonoan (Nerea).

### Merkatu Plazako zozketa

Hilabete honetan 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariek. Maria Jesus Arrese, Eduardo Hernandez, Pedro Morales eta Milagros Arriola izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jaso dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Zorionak!



### C.D Elgoibarko zozketa

Javi Abad elgoibartarra eta Aiako emakume bat izan dira C.D Elgoibar Taldeak Gabonetan eginiko zozketaren irabazleak. Zorionak!


Azkue

DENDEK URTEAN 8 JAI EGUNETAN ATEAK IREKITZEKO AUKERA AZTERTZEN ARI DA JAURLARITZA

# Ondo iruditzen al zaizu dendak jai egunetan ere zabaltzea?

**JOSE FERNANDEZ**
Jubilatua
77 urte



"Oso ondo. Askotan zerbait erostera joaten garenean dendak itxita egoten dira. Jai egunetan erosi ahal izatea oso ondo dago. Erosketak egitea erraztuko luke."

**ISABEL TENA**
Zaintzailea
47 urte



"Oso ondo. Lanean dagoen jende askok ez dauka erosketak egiteko astirik. Jai egunetan lan egin behar duenarentzat ez da egokia, baina erosleentzat bai."

**JUAN JIMENEZ**
Langabetua
50 urte



"Ez dago ondo. Eroslearentzat erosoa da, baina egoera honekin komertzio handiak aterako dira garaile, denda txikientzat kaltegarria izango da."

**ISABEL MARIN**
Etxekoandrea
54 urte



"Eroslearen ikuspuntutik ondo dago, baina lan egitea tokatzen zaionarentzat kaltegarria da. Honekin komertzio txikiak galtzen aterako dira, handien benefiziorako."

## [ BAI ala EZ ]

### Joango al zara Sigmako azokara?

**BAI %21**

"Ama da etxeko azokazalea eta Elgoibarkoa kendu zutenetik Eibarrera joaten da noizbehinka. Erabakia ez da modu onean hartu baina azkenean Sigman egiten bada, bertara joaten amaituko du seguruenik. Azken finean Sigma Eibar baino gertuago dago!"

**EZ %79**

"Ez, askoz aproposagoa da orain arteko kokapena. Sigma berez ez da hain urruti geratzen baina ez zait batere gustatu Udalak leku aldaketaren inguruan azaldu duen jarrera itxia. Herritarrok argi laga dugu Plaza Handia nahiago dugula. Azokarik gabe gartu behar al gara azkenean?"

Datorren asterako....

**Italian bezala, leku publiko guztietan erretzea debekatzearen aldeko al zara?**

Erantzunak: barren@elgoibarkoizarra.com edo Barreneko postontzian.



Alkatxofa frijituak txerri urdai, garaiko onddo, zigalatxo, arbendol txigortu eta udazkeneko zukuarekin.
Tubal jatetxea







50 produktu 50 jatetxe

Fagollaga jatetxea, Zuberoa jatetxea, Mugaritz jatetxea, Akelarre jatetxea, Tubal jatetxea, Etxebarri erretegia, Hartza jatetxea, Argomaniz Paradorea, Borda Berri jatetxea, Currito jatetxea, Les Pyrénées jatetxea, Portalón jatetxea, Fronton jatetxea, Astelena jatetxea, Casa Nicolasa jatetxea, Aloña Berri jatetxea, Martinez jatetxea, Etxanobe jatetxea, Casa Manolo jatetxea, Elkano jatetxea, Kabia jatetxea, Izkiña jatetxea, Jokin jatetxea, Urepel jatetxea, Txoko jatetxea, Leioako Ostalaritza Eskola, Goizeko Kabi jatetxea, Don Pablo jatetxea, Zelai Zabal jatetxea, Etxeberri jatetxea, Pierre Oteiza jatetxea, La Cuchara de San Telmo jatetxea, Casa Julian jatetxea, Etxalarko fonda, Morase jatetxea, Aratz jatetxea, La Boule jatetxea, Ramon Roteta jatetxea, Baserri jatetxea, Hotel Europa jatetxea, Etchepare hotela, Euskal Biskotx erakustokia, Bakea jatetxea, Las Torres ostatu-jatetxea, Alhambra jatetxea, Dolarea jatetxea, Angelita Alfaro, Zortziko jatetxea, Labekoa jatetxea.

# Euskal produktuak
## gure sukaldean

## Urtarrilaren 23tik aurrera
## egunero fitxa bat DOAN BERRIArekin




*Jantzi mantala eta hasi sukaldean!*

Laguntzaileak:

FAGOR

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Euskaldunok behar dugun

berria

Gazte tertulia...

# GAZTETXEA VS.

GAZTE ASANBLADAK SINATUTA, KOADRILEN LOKALEN AURKAKO PEGATINA ETA PANFLETOAK IKUSI AHAL IZAN ZIREN ELGOIBARKO KALEETAN GABON JAIETAN. BI ALDEETAKO ORDEZKARIAK MAHAI BATEN BUELTAN BATU DITUGU GAZTEEN ARTEAN HIKA-MIKA SORTU DUEN GAI HONEN INGURUAN BERAIEN IKUSPUNTUAK AZAL DIEZAZKIGUTEN. BATETIK, GAZTE ASANBLADAKO KIDE DIREN IBABE URZELAI ETA ANA ETXANIZ IZAN ZIREN ETA, BESTETIK, KOADRILAKO LOKALAK DITUZTEN IBAN MURUA ETA IBAN KONDE.

**Zergatik gaztetxea?**

**Ibabe:** Inori ateak itxi gabe herriko gazteak batzen dituen espazioa delako. Gazteen iniziatibak eta ideiak asanblada bitartez elkartrukatu eta aurrera ateratzeko bilgunea delako.

**Ana:** Gauza asko lor daitezkeelako: kontzertu, antzerki eta era guztietako ekintzak. Gainera, gazteoi gustatzen ez zaizkigun gizarteko gauzak aldatzen saiatu ahal gara.

**Zergatik koadrila lokala?**

**Iban Murua:** Ni ados nago gaztetxeari buruz esan dutenarekin, baina koadrila lokala edukitzeak ez du esan nahi gaztetxearen aurka nagoenik, batak ez du bestea ezabatzen. Ni, adibidez, hiru urtetan ia egunero joan izan naiz gaztetxera, eta oso gustura egon naiz bertan, baina nire koadrilaren lokalean askeago sentitzen naiz. Beste modu batean berba egiten dut nire jendearekin. Ezagutzen ez ditudanekin gehiago kikiltzen naiz.

**Pegatinak eta panfletoak atera aurretik, saiatu al zineten zuen artean arazo hau konpontzen? Ez al duzue uste ekintza hauek ere banatzaileak direla?**

**Ibabe:** Pegatinetako mezurik garrantzitsuena, Gazte Asanblada ostiralero arratsaldeko 19:00etan elkartzen dela argi uztea zen Hori zabaltzea axola zitzaigun. Gainontzean jendea zirikatzeko asmoarekin eginak zeuden, badakigulako lokaletan gazte asko dagoela. Ideia berriak eta gauzak ateratzeko jendea behar dugu. Litekeena da guk uste genuen kontrako efektua eragin izana. Zorionez, izan da Gazte Asanbladarekiko interesa azaldu duenik ere.

**Noiztik dago gaztetxe eta lokal hauen arteko hika-mika?**

**Iban K:** Ez dut ulertzen zergatik sartzen zareten lokalekin. Zer kalte egiten dute bada lokalek? Ez nago ados isolatzaileak direla esaten dutenekin eta gainera bakoitzak nahi duenarekin eta nahi duen lekuan egoteko eskubidea dauka. Inork ezin nau behartu egon nahi ez dudan leku batean egotera. Pegatina eta panfleto horiekin lokalak mezpretxatu dituzuela iruditzen zait.

**Ibabe:** Ez zen koadrilen lokalen aurkako ezer izan. Onartzen dut `Lokalak txikitu eta gaztetxea sortu´ zioen pegatina nahiko agresiboa zela, baina lehen azaldu ditut gure benetako asmoak. Pixka bat damututa nago pegatinak atera izanaz, batez ere erabilitako formagatik, lokalera joateak ez baitu esan nahi ezin zarenik gaztetxera joan.



> **"Nire koadrilak duen lokalean askeago senti-tzen naiz"**
> IBAN MURUA

> **"Gaztetxean egon naiz eta ez zait gustatu"**
> IBAN KONDE

# KOADRILA LOKALAK

**Azken urteetan koadrilen lokalen fenomenoak "boom" modukoa ezagutu du. Gaztetxearen kalterako izan al da?**

**Ana:** Halaxe da. Azken aldian asko ugaritu dira koadrilen lokalak eta agian lokal gutxiago egongo balira jende gehiago animatuko litzateke gaztetxera edo Gazte Asanbladara etortzera.

**Iban K:** Ni pare bat aldiz egon naiz gaztetxean eta ez zait gustatu. Ez dut niretzako moduko giroa aurkitu. Agian ez da horrela izango, baina aurreiritzi batzuk ditut gaztetxearen inguruan. Gaztetxeak ideia politiko jakin batzuek dituela iruditzen zait, ezker abertzalearen ingurukoak...

**Ibabe:** Hasi gara. Ziur nago jende askok pentsatzen duela gisa horretan, baina Gaztetxea apolitikoa da. Gazte Asanblada jende ezberdinarekin osatzen da, denak onartzen ditu. Orain dagoen asanblada ez da duela hiru urte zegoen berdina. Orain gaudenok antzera pentsatzen dugu, baina jende berria sartuz gero ideiak aldatu litezke.

**Ana:** Ez dago ezer itxita. Inor ez da joango beste inoren ideien aurka. Ideia guztiak entzunak izango dira.

**Bakoitzaren abantailak eta desabantailak.**

**Iban K:** Nik ez diot desabantailak ikusten koadrila lokalari. Agian garestiegia dela alokairua ordaintzea. Baina, zerbait nahi izanez gero ez dago beste erremediorik.

**Ibabe:** Gazte Asanbladan parte hartuz ekintza guztiak sortu edo aurrera ateratzeko aukera dago. Denori gustatzen zaigu ekintzetaz gozatzea, baina norbaitek antolatu behar ditu. Lokaletan irudimena gutxi lantzen duzuela iruditzen zait. Egunean 8 ordu play station-ari entxufatuta egonez gero, gorputza eta irudimena nagitzen direla uste dut. Aipaturikoez gain, jende berria, ezberdina ezagutzeko aukera eskaintzen du gaztetxeak, bai herrikoak eta baita inguruko herrietako gaztetxeetakoak ere. Eta beste abantaila garrantzitsu bat, gaztetxeko ekintzak ez dira gaztetxera bakarrik mugatzen. Ez gara gaztetxe barruan sartuta egoten.

**Koadrilen lokalak gazte guztientzat irekiak dira, edo zuen koadrilako jendea bakarrik onartzen duzue?**

**Iban M:** Koadrilako 15 lagunen artean daukagu hartuta lokala, baina edonor sartzen da, egunero aurki daiteke beste koadriletako jendea.

> **"Gaztetxea bertara doan jendearena da"**
>
> ANA SANCHEZ

> **"Pegatinak jendea zirikatzeko eginak zeuden"**
>
> IBABE URZELAI

**Zer egiten duzue koadrilen lokaletan?**

**Iban K:** Lagunekin berba egin, planak antolatu, eskolako lanak egin, Play Station-era jokatu... gauza asko egin daitezke, baina ez dugu egun santu guztia lokalean sartuta ematen.

**Gaztetxea gazte guztiona dela aldarrikatzen duzue. Ez al duzue uste gazte batzuena bakarrik dela?**

**Ana:** Gaztetxea bertara doan jendearena da.

**Iban K:** Nik beste gazte koadrila baten lokal bat gehiago moduan ikusten dut gaztetxea, beti jende berdina ikusten baitut.

**Ibabe:** Elgoibar herri itxia dela iruditzen zait. Herria da itxia eta ez Gazte Asanblada. Jendearen arteko harremanak sortzea asko kostatzen da. Hortaz, ezin dezakegu espero asanbladara agertu eta segituan guztiekin konfiantza izugarria izatea. Denbora bat behar da jendea ezagutzeko.

**Gazteen egoera hobetzeko, ez al duzue uste gazteak batera egon beharko liratekeenik?**

**Ana:** Funtsezkoa da. Herriko egoera hobetu, protesta egin edo gauzak sortzeko aukera ona iruditzen zait gaztetxera joan eta beste jende batekin berba egitea.

**Iban M:** Gazteen artean "pasotismo" asko dagoela uste dut. Bakoitza berera doa eta ondo pasatzea da gehienen helburua.



## Elgoibarko Udal Liburutegiak sari bat jaso du

Kultura Ministeritzako Liburu, Artxibo eta Liburutegi Zuzendaritza Orokorrak Elgoibarko Udaleko Liburutegiak irakurzaletasuna suspertzeko egin dituen ekintzen proiektua saritu du. Udal Liburutegiko arduradunek badaramatzate urte batzuk gaztetxoengan irakurtzeko zaletasuna bultzatzea helburu duten kanpainak antolatuz, baina 2004. urtean erabaki zuten sari hauetara aurkeztea. Sari gisa liburu sorta bat jasoko dute.

## "El Mago de Oz" musikala

Butaca de Patio antzerki konpainiak L. Frank Baum-ek idatzitako "El Mago de Oz" antzezlan musikala taularatuko du bihar (larunbata), hilak 22, Herriko Antzokian. Bi saiotan eskainiko dute, eguerdiko 12:00etan lehena eta 16:30ean bigarrena. Garai guztietako musikal ezagunena den honetan 16 abesti entzun eta sei dekoratu aldaketa ikusi ahal izango dira, besteak beste.

### Santa Eskeko "Etxegiña" Taldea

# Otsailaren 5ean aterako dira kopla kantari

Urtero legez, Santa Eskeko "Etxegiña" Taldea otsailaren 5ean, zapatuan, aterako da koplak kantatzera Elgoibarko kaleetara. Ohitura dutenez, goizeko 9:00etan aterako dira Bolatokitik eta bi taldetan banatuko dira. Talde bat Kepa Urain koplariak zuzenduko du, eta bestea Jesus Urizarrek. Aipatzekoa da, aurtengoarekin Kepa Urainek 25 urte beteko dituela koplari gisa. Urte askoan talde barruan aritu ostean, German Uriguenek lagatako lekua hartu zuen 1981ean.

Goizeko 11:00ak aldera, bi taldeak Urasandiko La Union Elkartean bilduko dira hamarretakoa egiteko. Handik San Lazaro egoitzara abiatuko dira Kepa Urainen zuzendaritzapean. Kopla batzuk abestu ondoren, herriko kaleak zeharkatuko dituzte eguerdiko 14:00ak aldera, Errosario kaleko Ama Birjinaren aurrean Salbea abestuz bukatzeko. Entsaioak otsailaren 1ean eta 3an izango dira, Kultur Etxeko sotoan iluntzeko



20:00etan. "Etxegiña" Taldeak joan nahi duen guztiari gonbidapena luzatzen dio.

**Koplatan baserriz baserri**

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda koruetan parte hartu nahi dutenek urtarrilaren 24a baino lehen eman behar dute izena Elgoibarko Izarrara deituta (943 74 16 26 Imanol). Otsailaren 4an, barixakuan, aterako dira koplari baserriz baserri arratsaldeko 14:30etan hasita.






Pintxoetan aukera zabala

P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76






MEKANOSA

Errosario, 30

Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

## LXII. Juan Mugerza Nazioarteko krosa

# Etiopiarrak faborito domekan Mintxetan



*Maregu Tarefe etiopiarra ezkerrean eta Fabiano Joseph aurkezpen egunean.*

Antton Azpiazu Mintxeta Atletismo Taldeko kidearen hitzetan Mugerza Krosak inoiz izan duen etiopiar talde indartsuena aurkeztuko du domeka honetan, hilaren 23an. Faborito nagusienetako bat Maregu Tarefe izango da. 22 urteko etiopiarra 3. postuan sailkatu zen 2003ko distantzia laburreko Munduko Kros Txapelketan eta Itálica-ko Kros garrantzitsua irabazi du oraintsu. Tariku Bekele, berriz, Kenenisa anaiak 2003an Elgoibarren lortu zuen garaipena errepikatzen saiatuko da. Aurten Oeiraseko (Portugal) kros lasterketa irabazi du Paul Tergaten aurretik. Abebe Dinkesa, Meba Tadesse Munduko junior txapelduna, eta Worku Bado 16 urteko gaztea ere ez dira begi bistatik galdu behar. Etiopiarrez gain, Fabiano Joseph tanzaniarra, Eliud Kirui keniarra eta Juan Carlos de la Ossa eta Chema Martinez espainiarrak izango dira Elgoibarren, besteak beste.

## Retegi eta Mendizabal irabazle San Anton Txapelketan



Julian Retegi handiaren semea eta Mendizabal 22 eta 18 emaitzarekin nagusitu ziren Diaz-Bengoetxea bikotearen aurka. San Anton Txapelketako finala urtarrilaren 15ean jokatu zen Ikastolako frontoian. Mendizabal atzelari hernaniarra aukeratu zuten finaleko pilotaririk onena. Gazteen maila ere emozioz josia egon zen eta 13 eta 21 galtzen joan ostean, 22 eta 21 irabazi zuten Belloso eta Mujikak Olaetxea-Arrastoaren kontra.

### Elite Txapelketa

Bestalde, Ortuellako Lopez Aldai eta Berasaluze berriztarraren artean erabakiko da III. Euskadiko Lau eta Erdiko Elite Txapelketako irabazlea urtarrilaren 22an jokatuko den finalean. Aurrez, Erreak eta Zapirainek jokatuko dute 3. eta 4. postuak erabakitzeko partida. Jaialdia 16:30ean hasiko da.

## [ EMAITZAK ]

**Futbola**

Zalla **2** - Haundi **2 (3. maila)**
Pedrusko **2** – Elgoibar **1 (1. erreg.)**
San Marcial **0** – Elgoibar **2 (Jub.)**
Mutriku **1** – Elgoibar **2 (Kad.)**
Añorga **2** – Elgoibar **3 (Inf. A.)**
Elgoibar **4** – Real Union **3 (Inf. B)**
Anaitasuna **4** – Elgoibar **0 (Neskak)**
Gasteiz **8** – Elgoibar **2 (Neskak F-8)**

**Esku pilota**

Euskal Herriko Liga
Oizpe **22** - Lagunak **7 (Jub. banaka)**
Lagunak **22** - Zaramaga **3 (Jub. binaka)**
Oizpe **22** - Lagunak **7 (Jub. banaka)**
San Anton Txapelketa (Finalak)
Olaetxea/Arraztoa **21** – Belloso/Mujika**22 (Gaz.)**
Retegi/Mendizabal **22** –Diaz/Bengoetxea **18(Ng.)**
4 ta erdiko Elite Txapelketa (Finalaurrekoak)
Lopez Aldai **22** – Errea **20**
Berasaluze **22** – Zapirain **7**

**Eskubaloia**

Leizaran **15** – Sanlo **7 (Inf. nes.)**
Sanlo **24** – Aloña Mendi **25 (Inf. mut.)**
Pagoaga Sanlo **11** – Aloña Mendi **26 (Kad. nes.)**
Cometel Sanlo **22** – Aloña Mendi **11 (Jub. nes.)**
Egia **25** – Tecnomeca Sanlo. **21 (Kad. mut.)**
Ald. Zarautz **28** – Pneumax Sanlo. **20 (Jub. mut.)**
Bera Bera **13** – Sanlo. **35 (Sen. nes.)**
ANTT Sanlo **22** – Eibarko **24 (Sen. mut.)**
Tecnifuelle **28** – UPV **19 (Sen. mut.)**

## [ AGENDA ]

**Futbola,** Mintxetan

**Zapatua, 22**
**12:30** Elgoibar – Almen **(Neskak F-8)**
**16:00** Elgoibar – Soraluze **(1. erreg.)**
**18:00** Elgoibar – Amorebieta **(Jub.)**
**Domekia, 23**
**16:30** Elgoibar – Antoniano **(Kad.)**

**Esku Pilota,** Ikastolako frontoian

4 ta erdiko Elite Txapelketa
**Zapatua, 22**
**16:30** Berasaluze – Lopez Aldai (finala)
**17:30** Errea – Zapirain (3. eta 4. postua)
Udaberri Txapelketa
**Barixakua, 21**
**21:00** Lagunak – Hernani **(Kad.)**

**Eskubaloia**

**Zapatua, 22**
**17:30** Pneumax Sanlo – Gatz museoa **(Jub. mut.)**
**19:00** Tecnifuelle – Romo **(Sen. mut.)**
**Domekia, 23**
**10:00** Sanlo – Basauri **(Sen. nes.)**

# Merkatua

**OHARRA**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

- Arrasateko enpresak **mekanikoa** behar du. Erref. 162005000318
- Azkoitiko enpresak **tokiko garapenerako agentea** behar du. Erref. 162005000280
- Arrasateko enpresak **inkestatzailea** behar du. Erref. 162005000174
- Oñatiko enpresak **furgoneta gidaria** behar du. Erref. 162005000493
- Eibarko enpresak **autoeskolarako irakaslea** behar du. Erref. 162004009250
- Eibarko enpresak **tornurako langilea** behar du. Erref. 162005000462
- Gipuzkoako enpresak **farmazia bisitatzailea** behar du. Erref. 162005000168
- Oñatiko enpresak **industria ingeniaria** behar du. Erref. 162005000387
- Mendaroko enpresak **CNC tornurako langilea** behar du. Erref. 162005000194
- Eibarko enpresak **iturgina** behar du. Erref. 162005000198
- Gipuzkoako enpresak **kamioi gidaria** behar du. Erref. 162005000354

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Ramón) 943 74 41 32 telefonora.

## [ GARAJEAK ]

- Garaje komunitarioa alokatzen da San Roke auzoan. ☎ **653 73 94 67**
- Garaje itxia salgai Ermuaranbide kalean. 19,90m². ☎ **943 74 28 75**
- Madalako errotondaren ondoan garaje itxia salgai. ☎ **943 74 24 06**

## [ LANA ]

**ESKAERA**

- Emakumea umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **660 91 94 23**
- Emakumea etxeko lanak edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **650 82 92 46 (eguerdi/gauean)**
- Pertsona bat arratsaldez lan egiteko prest. ☎ **636 923 990**
- Emakumea nagusiak zaindu, garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **639 88 20 04**
- Emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ **943 17 28 96 (Mertxe)**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. ☎ **679 86 41 47**
- Emakumea garbiketa lanak egin (tabernak, elkarteak...), nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburuak barne. ☎ **618 37 91 47**
- Gizonezkoa pintore, peoi edo banatzaile lanetarako prest. ☎ **679 86 41 47**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. ☎ **659 627 356 (Khadra)**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **677 05 99 99**
- Emakumea sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko prest. ☎ **699 60 91 90**
- Boliviako mutila peoi, txofer edo banatzaile lanetarako prest. ☎ **620 36 38 24**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Arratsaldez, 14:30-17:00. ☎ **665 755 211**
- Gizonezkoa Debabarrenean eraikuntza, soldadore... lanetarako prest. ☎ **639 88 20 04**

**ESKAINTZA**

- Tailer mekanikorako langile-ikaslea behar da. ☎ **902 10 32 87**
- Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Egun solteak. ☎ **943 74 18 46**
- Eibarko tabernarako pertsona euskalduna behar da. Autoa ezinbestekoa. ☎ **943 70 19 95 (22:00etatik aurrera)**
- Kamareroa behar da. ☎ **670 25 04 29**

## [ ETXEBIZITZAK ]

**SALMENTA**

- Pisua salgai Sigman. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua. Prezioa adosteko. ☎ **685 76 61 54/943 74 29 21**
- Etxe berritua salgai Soraluzen. Komunak eta sukaldea amueblatuta. Garajea, entreplanta eta txokoa. 144m². ☎ **615 77 99 20**
- Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m². Dena kanpora begira. Bi logela, 2 komun, egongela, sukaldea, lehortegia eta garajea. ☎ **687 23 58 39**
- Etxea salgai erdialdean, leku lasaia. 3 logela, 2 komun. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **615 78 71 18**
- Etxea salgai Basarten. 74m². Garajea aukeran. ☎ **687 05 17 89**
- Etxea salgai Santa Ana kalean. Sukaldea, egongela, komuna, 3 logela, despentsa, 2 ganbara. Argitsua, lasaia. ☎ **685 767 900**
- Atikoa salgai. Bizitzera sartzeko moduan. Sukaldea, egongela. bi logela, trastero handia eta igogailua. ☎ **656 72 44 01**
- Etxea salgai Bernardo Ezenarro kalean. 2 logela, sukaldea, komuna, egongela. jangela. Berritua, altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. ☎ **678 44 66 93**
- Etxea salgai Basarten. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. ☎ **620 549 500**
- Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**
- Apartamentua eta txokoa salgai Ean (Bizkaia). Aukera ezin hobea. ☎ **675 70 01 95 (Mª Jesus)**
- Arregitorren etxea salgai. 3 logela, egongela, 2 komun, ganbara, berritua eta eguzkitsua. ☎ **679 830 438**
- Etxea salgai Errosario kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea ekipatua, egongela. ☎ **658 71 89 26**
- Etxea salgai Pedro Muguruzan. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. 2 logela, egongela handia. ☎ **675 70 01 95**


**San Lorentzon (ELGOIBAR)**
*Ermita ondoan*
Etxe berritua salgai. Berogailua, dena jantzita.
Egongela handia, tximiniarekin.

ARBELOA INMOBILIARIA San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27 / 699 95 30 21


## [ SALEROSKETAK ]

- Bigarren eskuko Corbero izozkailua salgai. Oso egoera onean. 91x70 (270 litro). 130 euro. ☎ **943 74 23 39**
- Renault Clio 1.9D salgai. 1000 euro. ☎ **943 03 17 43/627 60 37 48 (arratsaldez deitu)**
- Kenwood markako irrati kaseta salgai. 6 CDrentzako kargadora. Egoera onean. 150 euro. ☎ **626 588 482 (Imanol)**
- Toshiba Satellite A6521 ordenagailu portatila salgai. 4 hilabete. 15" pantaila. 600 euro. ☎ **650 34 44 28 (Ibon)**
- San Roke auzoan 4000m²-ko terrenoa salgai. ☎ **627 377 543**
- Opel Corsa, 1.7 di autoa salgai. Modelo berria. Egoera onean. ☎ **943 74 01 97/645 048 110**
- Garaiko andregai trajea salgai. Egoera oso onean. ☎ **943 02 66 27/609 200 620 (Toñi)**
- Hispano-arabe arrazako zaldia salgai. Hezitua eta pasiaran ibiltzeko egokia. ☎ **669 03 89 57**
- Vitrozeramika, laba, konbia eta mepansa salgai. Berriak, merke. ☎ **943 74 04 86**
- Sukaldeko mahaia, bi banketa eta bi aulki salgai. Egongelako armairuak ere bai. ☎ **943 74 04 86**
- Renault Megane Scenic 1.9 dci grisa salgai. 2000. urtekoa. 8.500 euro. ☎ **660 660 503 (Ibon)**
- Mitsubishi Montero Sport 2.5 tdi Gls plus, 115 zaldi, 4x4 salgai. 2003koa, 35.000 km. Beti garajean. ☎ **639 179 171**
- Sehaska bat salgai, forratuta. Prezio onean. ☎ **943 74 16 19**
- Play Station 1 salgai. Mandoa, memory card, joku originala. 48 euro. ☎ **943 74 32 96**
- Wind Surf tabla salgai. 5,8 metroko bela. 325zm. eslora. Ekipo osoa. 550 euro. ☎ **610 631 842**

## [ LOKALAK ]

- Lokala salgai Urasandin. 150m². ☎ **943 74 08 64**

## [ BESTERIK ]

- Aterki gris berria topatu dut apeaderoan. ☎ **943 53 16 72**
- Jertse beltza galdu nuen urte zahar egunean Iratxo tabernan. Udaltzaingora eraman.
- Trasteroa hartuko nuke alokairuan. ☎ **943 53 13 67**
- Txakur zuria aurkitu dut San Lorentzo inguruan. ☎ **943 74 12 23**
- Taberna alokatzen da Basarten. ☎ **670 65 49 21**
- Sofa zaharrak botatzeko dituenak, mesedez deitu, gazte lokalerako behar ditugu. ☎ **679 08 94 81**

# [AGURRAK]



Aupa **Markel**, ondo portatu zara lehenengo urte honetan, ea txintxo eta alai jarraitzen duzun! Aita, ama eta familiakoen partez.



Gezurra dirudi urte bete dela zu jaio zinenetik! Zorionak Ikastolako laguntxoen partez!!!!



Pilar ikastetxeko haur hezkuntzako irakasle eta ikasle guztion partetik zorionak eta egun on bat pasa dezazula.



Pilar ikastetxeko lehen hezkuntzako irakasle eta ikasle guztion partetik zorionak eta egun on bat pasa dezazula.



Zorionak **Leire** hilaren 19an 9 urte egin zenituelako. Etxekoen partez.



Zorionak **Sara!** larunbatean ea 1go kandelarekin lasaitzen zaren! Muxu bat Joaneren partez.



Zorionak **Asier** gaur, hilak 21, urte bat egin duzulako. Gurasoen eta bereziki, Eiderren partez.



Zorionak **Ibon**, bihar, hilak 22, 9 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez. Ondo pasa eguna!



Zorionak **Miguel** urtarrilaren 19an 8 urte egin zenituelako. Sandra eta familiakoen partez.



Zorionak **Ainhoa Urbizu** urtarrilaren 20an 9 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



Zorionak **Txaber eta Iurgi**, gure etxeko bi bihurriak, 10 eta 3 urte bete zenituztelako. Gurasoen partez muxu handi bana.



Azkenean heldu zen eguna... lagunen partez, zorionak **bikote!**


autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

**Segurtasuna Interneten, konpondu gabeko arazoa**

Hirugarren mintegi honetan, **eraso, arau-hauste edo ardura ezaren aurrean zure negozioa nola egokitu eta babestu** dezakezun erakutsiko dizugu: birusak, segurtasun kopiak, zabor posta, Datuak Babesteko legea, etab.

**Deba Barrena**
urtarrilak 27
ELGOIBAR
Máquina Herramienta BHI (IMH)

Ordutegia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:
**902 252 595**
**www.miramondigital.com**
**cursos@miramondigital.com**

Antolatzailea: Miramon Enpresa Digitala

Sustatzaileak: euskadi, e-gipuzkoa, SPRI

# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]




23 igandea FOTERO

## [ FARMAZIAK ]

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 21 | Yudego | Yudego |
| 22 | Etxeberria *(Santa Ana)* | Zabaleta |
| 23 | **Zabaleta** | **Zabaleta** |
| 24 | Etxeberria (Errosario) | Etxeberria |
| 25 | Ibañez | Ibañez |
| 26 | Bidasolo | Bidasolo |
| 27 | Etxeberria *(Santa Ana)* | Etxeberria |
| 28 | Fernandez | Fernandez |

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ TELEFONOAK ]

| **OSASUNA** | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

| **UDALA** | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |

| **GARRAIOAK** | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak. | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

| **BESTELAKOAK** | |
|---|---|
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |

| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

| **IKASTETXEAK** | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua | |
| Arreiturre | 943 74 80 19 |
| Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
***Pesa: 902 10 12 10***

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
***PESA: 902 10 12 10***

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**SIGMA - ARRIAGA**
Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10
Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**ARRIAGA - SIGMA**
Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00
Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**ELGOIBAR-DEBA**
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 22 ZAPATUA ]

**11:00 SAN BIZENTE EGUNEKO MEZA**
San Rokeko ermitan

**12:00 "EL MAGO DE OZ" ANTZEZLAN MUSIKALA**
Herriko Antzokian

**16:30 "EL MAGO DE OZ" ANTZEZLAN MUSIKALA**
Herriko Antzokian

**16:30 III. EUSKADIKO 4 ETA ERDIKO ELITE TXAPELKETAKO FINALA**
Ikastolako frontoian

**17:00 SAN BIZENTE EGUNEKO BOLO TXAPELKETA**
San Rokeko auzoan

**19:30 LXII. MUGERZA KROSEKO KORRIKALARIEI HARRERA**
Udaletxeko Areto Nagusian

**20:30 LAGUNARTEKO BAZKARIA**
San Rokeko auzoan



## SINOPSIAK

**«La Busqueda»**



## [ 23 DOMEKIA ]

**10:10 LXII. MUGERZA KROSAREN HASIERA**
Mintxetan
Antolatzailea: Mintxeta Atletismo Taldea, Udal Kirol Patronatua eta Elgoibarko Udala

## [ 28 BARIXAKUA ]

**9:00 BOSKO DEUNA**
Elgoibar BH Institutuan

**19:00 IKASTOLAKO JAIALDIA**
Ikastolako frontoian



## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR**
HERRIKO ANTZOKIAN
**«La Busqueda»**
21, barixakua: 22:15
22, zapatua: 19:30-22:15
23, domekia: 19:30-22:15
24, astelehena: 19:30-22:15
**«Los Increibles»**
23, domekia: 16:30
**«El Regreso» (Z.K.)**
27, eguena: 22:15

**EIBAR,** UNZAGA
**«Catastroficas desdichas»**
21, barixakua: 19:30-22:15
22, zapatua: 17:00-19:30-22:30
23, domekia: 17:00-19:30-22:30,
24, astelehena: 19:30-22:15
25, martitzena: 19:30-22:15
26, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR,** RIALTO
**«El Maquinista»**
21, barixakua: 19:30-22:15
22, zapatua: 17:00-19:30-22:30
23, domekia: 17:00-19:30-22:30,
24, astelehena: 19:30-22:15
25, martitzena: 19:30-22:15
26, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

### «El Regreso» (Z.K.)

Zuzendaria: Jon Turteltaub.
Antzezleak: Nicolas Cage, Diane Kruger eta Sean Bean.
Benetan existitzen dela gutxik sinistu arren, Benjamin Franklin Gates (Nicolas Cage) bizitza osoan saiatu da altxor bat topatzen, zaldun templarioen paregabeko altxorra, hain zuzen ere. Amerikako lekuren batean gordeta dagoela uste da eta Gates jaunak zuzenean altxorreraino eraman dezakeen pista aurkitu du, independentzia deklarazioaren atzealdean ezkutatuta dagoen mapa bat, alegia. Ez da lan erraza izango, Amerikako dokumenturik garrantzitsuena baita eta berau lapurtzeko inoiz asmatu diren segurtasun neurririk zorrotzenak gainditu beharko ditu.



Zuzendaria: Andrei Zvyagintsev.
Antzezleak: Vladimir Garin, Ivan Dobronravoy, Konstatin Lavronenko.
Duela 10 urteko argazki zahar batetik ozta-ozta oroitzen duten aitaren itzulerak bi anaien bizimodua hankaz gora jarriko du. Beraien benetako aita ote da? Zergatik itzuli da horrenbeste urteren ostean? Haurrek aitarekin batera bidaiatuko dute irla bakarti eta urrun batera eta bertan aurkituko dituzte erantzun guztiak. Ikusleak ere beraiekin batera joan ahal izango du barne bidaia honetan. Zvyantsev zinegile errusiarrak azken urteotako filmerik misteriotsu eta arrakastatsuena lortu du bere lehen lanarekin.

# Atzera begira



**1962**. urteko erretratu zahar hau herritar batek laga digu. Argazkia maiatzaren 31n ateratakoa da, German Etxegiñari eginiko omenaldian, hain zuzen ere. Etxegiña gizon oso ospetsua izan zen, eta euskal kantak eta euskal kultura izugarri maite izan zituen. Bertsolaria ere bazen, eta Santa Eskean urte mordoan atera zen kantuan. Erretratu honetan bere omenezko mezara bidean ikusten ditugu txistulariak. Orduan ere bazen Elgoibarren herriko txistularien taldea. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak:
Txistulariak ezkerretik eskumara: **Felix Ansola, Patxiko Etxeberria (†), Julian Iriondo**, eta **Silvino Gabilondo (†).** Txistularien atzetik **Etxegiña (†)** dator, bere lagun eta beste hainbat herritarrez inguratuta. Hauen artean **Fulgentzio Barrutia (†)** ikusten da. Arkupeetan dauden bi gizonak: **Lorenzo Goiarzun (†)** eta **Fructuoso Arrien "Pope" (†).**

---



**ESKERTZA**

2004ko abenduaren 22an, 57 urte zituela hil zen
*Iñaki Jauregi Esnaola*ren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





**ESKERTZA**

2005eko urtarrilaren 16an hil zen
*Luis Fernando Santolaya Lizundia*ren
emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

***Ordenagailu bidez*** *teoria ikasteko gela berria* **!**



**ORDUTEGIA**

**10:00**etatik-**12:30**era
**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR






Erantzuna Udal Euskaltegian



**UDAL**
**EUSKALTEGIAK**

www.udaleuskaltegiak.net

Euskara ikasi edo hobetu nahi baduzu,
zatoz Udal Euskaltegira

Talde eta ordu hauetan eman dezakezu izena:

Behe maila: 09:15 - 11:45 / 14:00 - 16:00
16:00 - 18:30 / 20:00 - 22:00
Erdi maila: 09:00 - 11:00
EGA: 08:30 - 10:30 / 15:00 - 17:00

**DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea**
**Nafarroa Enparantza 2 • 20870 ELGOIBAR • Tel./Faxa: 943 74 27 31 • elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net**

# Beherapenak

Julene
San Frantzisko, 43
Tel.: 943 74 42 53

Lizzy
Errosario, 25
Tel.: 943 74 23 02

Ferpi Modak
San Bartolome, 38
Tel.: 943 74 08 15

gofi
Giza Eskubideen plaza, 1
Tel.: 943 74 46 53

GARATE
San Bartolome, 13
Tel.: 943 74 11 29

Jantzi Maidagan Denda
San Frantzisko, 20
Tel.: 943 74 40 98

IRIONDO KIROLAK
San Frantzisko, 37-54
Tel.: 943 74 09 56

Sara
Errosario, 12
Tel.: 943 74 35 55

ASTIGARRAGA KIROLAK
Errosario, 16-18
Tel.: 943 74 32 68

Luvik
San Bartolome, 28
Tel.: 943 74 31 27